

Aparkalekuen berrantolaketa PROPOSAMENA

2021eko maiatzean TAO zerbitzuaren denboraldi berria hasiko da. Maiatzaren 1etik 31ra bitartean asteburu eta jai egunetan soilik, eta ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean egunero.

Horretarako, aparkalekuen antolaketa berria lantzen ari da Debako udala. Lehenengo proposamena landu denez, orain herritarrekin partekatu nahi dugu, zuen ekarpenak jasotzeko asmoz.

Deban eta Itziarren harrera bulegoetan jarriko dira aparkalekuen antolaketa berria azaltzen duen plana eta baita ekarpenak jasotzeko kutxak ere, **abenduaren 22tik urtarrilaren 15era bitartean. Ekarpenak** helbide elektronikoa bidez (aparkalekuak@deba.eus) jasotzeko aukera ere izango da.

HELBURUAK:


- bertakoei lehentasuna ematea.
- ibilgailuen errotazioa bermatzea eta zerbitzuari beste bizitasun edo mugikortasun bat ematea, aparkatzeko aukera gehiago egon dadin.

BERRANTOLAKETA PROPOSAMENA:

1. SEKTOREA - Gudari plaza: urte osoan zehar, gune hau orain arte bezala mantenduko da, 30 minutuko gehieneko aparkaldiarekin, baina txartela ateratzea derrigorrezkoa izango da.

2. SEKTOREA - Geltoki zaharreko aparkalekua: Helburua errotazio handiko gunea izatea denez, urte osoan zehar erabiltzaile guztientzat gehieneko 2 orduko aparkaldia baimenduko da, erabiltzaile guztiek txartela atera beharko dute. Bertakoentzat eta udatiarrentzat doanekoa izango da, eta arratsaldeko 18:00etatik goizeko 9:00ak bitartean txartelik eta denbora-mugarik gabe aparkatzeko aukera izango dute.

3. SEKTOREA - Nafarroa plaza: Orain arte bezala, Nafarroa plaza neguan doanekoa izango da, eta TAO denboraldian gehieneko 5 orduko aparkaldia baimenduko da, baina bertakoek eta udatiarrek 2,25€ ordainduta egun osoan



aparkatzeko aukera izango dute, eta arratsaldeko 18:00etatik goizeko 9:00ak bitartean doan.

4. SEKTOREA - Gune urdin-gorria: Nafarroa plazarekin alderatuta, TAO denboraldian (Bastinuixa, Montreal, Markiegi, Marinel eta Calbeton Zumardiko gunean) bertakoek eta udatiarrek doan aparkatzeko aukera izango dute egun osoan.

5. SEKTOREA - Artzabalgo aparkalekua: orain arte bezala, TAO denboraldian zehar, bertakoentzat eta udatiarrentzat doako aparkaldia baimenduko da, denbora-mugarik gabe. Gainontzeko erabiltzaileentzat, aldiz, egun erdiko edo egun osoko aparkaldia baimenduko da, eta autokarabarentzat egun osokoa.

6. SEKTOREA - Herri-gunea: TAO denboraldiak irauten duen bitartean, “bertakoa” txartela dutenak baimenduko dira soilik, 24 orduz eta doan. Bertakoen gunea Angulero, Astillero, Agirretxe, Mogel, Elizburu, Itziar bidea, Latzurregi, San Josepe, Osio, Ifar kale, Itsas-Begi, Hondartza eta Arrantzale kaleek osatuko dute. Hondartza kalearen kasuan

TAO prezioak:

1. sektorea: dohainik

2. sektorea:

- bertakoek eta udatiarrek dohainik
- bisitariak (neguan/udan):
30min: - /0,40€
ordu 1: 0,35€/0,80€
1,5 ordu: - /1,15€
2 ordu: 0,70€/1,50€

3. sektorea (udan):

- bertakoek eta udatiarrek 2,25€/eguna
- bisitariak:
30min: 0,90€
ordua: 1,80€

4. sektorea (udan):

- bertakoek eta udatiarrek dohainik
- bisitariak:
30min: 0,90€
ordua: 1,80€

5. sektorea (udan):

- bertakoek eta udatiarrek dohainik
- bisitariak:
egun erdia 3€ / egun osoa 5€
- autokarabaneak 5€/eguna

6. sektorea: bertakoak soilik - dohainik

7. sektorea: baimenduak soilik - dohainik

hilerri ingurua eta Miramarreko aparkalekuak, eta Arrantzale kalearen kasuan ibaitik porturako guneak. Horrez gain, uztaila eta abuztuan zehar eskoletako patioetan “bertakoa” eta “udatiarra” txartela duten ibilgailuak baimenduko dira soilik, 24 orduz eta doan.

7. SEKTOREA - Alde Zaharra: oinezkoen gunea indartzeko asmoz, urte osoan zehar, zama lanetarako ibilgailu baimenduek soilik izango dute bertan aparkatzeko aukera. Mugikortasunagatik edo irisgarritasunagatik beharra duten herritarrek baimena eskatu beharko dute Udaltzaingoa. Ordutegia mantenduko da: astelehenetik ostiralera 8:00etatik 13:00etara, eta larunbatetan 8:00etatik 12:00etara. Igande eta jai egunetan itxita egongo da.

